

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

VILLABONAKO UDALA

Beren jarduera Gizarte Zerbitzuetan garatzen duten elkarteei 2026. urterako dirulaguntzak emateko deialdia eta oinarriak.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko apirilaren 29an eginiko bilkuran, beren jarduera Gizarte Zerbitzuetan garatzen duten elkarteei 2026. urterako dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia onartu zituelarik, argitara ematen dira.

Villabona, 2026ko apirilaren 30a.—Beatriz Unzue Esnaola, alkatea. (2920)

Beren jarduerak Gizarte Zerbitzuetan garatzen dituzten elkarteei emango zaizkien dirulaguntzak arautzeko oinarriak. 2026. urtea.

Villabonako Udaleko Gizarte Ongizateko Sailaren aurrekontuak irabazi asmorik ez duten erakunde eta elkarteentzako dirulaguntzak emateko partidak jasotzen ditu.

Horregatik, eta Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten entitateei aipatutako dirulaguntzak eskura jartzeko eta, era berean, aurrekontuan jasotako ekintzen publikitatea bermatzeko xedez, ondoko arauak finkatu dira:

1. Xedea.

Arau honen xedea hau da: Gizarte Zerbitzuen arloan Villabonako udalerrian diharduten, edota beren onuradunak Villabonako herritarrak diren elkarteei 2026. urtean zehar garatutako jardueretarako emango zaizkien dirulaguntzak arautzea.

Dirulaguntzen xede orokorra elkartearen helburuak lortzen laguntzea izango da, ordezkatzeko dituzten kolektiboei dagokienez. Dirulaguntzek ondoko alor espezifikoak hartuko dituzte:

- Entitatearen eguneroko jarduera mantentzea.
- Sentsibilizazio, hezkuntza eta informazio ekintza espezifikoak eta entitatearen jarduera zabaltzea (jardunaldiak, mintegiak, ikastaroak, etab.).
- Esku hartzeko programa espezifikoaren garapena, elkartearen jardueraren xede diren kolektiboei zuzendurik. Boluntarioek burututako jarduerak bereziki baloratuko dira.

Herritarrak, orokorrean, sektore espezifikoetara bideratu ahal izango dira: familia, haurtzarora, dibertsitate funtzionala, mendekotasuna edo gaixotasunak dituzten pertsonak, gutxiengo etnikoa, inmigranteak, preso ohiak, osasungarriak ez diren kontsumo ohituretara mendekotasuna duten pertsonak, ludopatía, etab. adineko pertsonak eta Gizarte Zerbitzuen esku-hartzea behar duen gizarte arrisku egoerako beste edozein talde.

2. Eskatzaileak.

Dirulaguntzen onuraduntzat hartuko da dirulaguntza hori emateko arrazoia den jarduera egin behar duen irabazi asmorik gabeko elkarteak.

AYUNTAMIENTO DE VILLABONA

Convocatoria y bases reguladoras para la concesión de subvenciones para asociaciones que desarrollan su actividad en Servicios Sociales para el año 2026.

Aprobadas por la Junta de Gobierno Local, en sesión de 29 de abril de 2026, las bases reguladoras de la convocatoria para la concesión de subvenciones para asociaciones que desarrollan su actividad en Servicios Sociales para el año 2026, se procede a su publicación.

Villabona, a 30 de abril de 2026.—La alcaldesa, Beatriz Unzue Esnaola. (2920)

Bases por la que se establecen las normas para la concesión de subvenciones para asociaciones que desarrollan su actividad en servicios sociales. Año 2026.

El presupuesto del Área de Bienestar Social del Ayuntamiento de Villabona, contempla partidas presupuestarias de subvenciones destinadas a instituciones y asociaciones sin fines de lucro.

Por ello, y con el fin de facilitar el acceso a dichas subvenciones por parte de las diversas entidades que trabajan en materia de servicios sociales, así como para garantizar la publicidad de las acciones contempladas en el presupuesto, se citan las siguientes normas:

1. Objeto.

Es objeto de la presente norma la regulación de concesión de las subvenciones para actividades desarrolladas a lo largo del año 2026 por las Asociaciones con fines dentro del área de servicios sociales en el Municipio de Villabona, o cuyos/as beneficiarios/as sean residentes de Villabona.

Las subvenciones tendrán como objetivo general el apoyo en el cumplimiento de sus fines en relación a los colectivos que representan. Las subvenciones podrán referirse a los siguientes ámbitos específicos:

- Mantenimiento de la actividad ordinaria de la entidad.
- Acciones específicas de sensibilización, formación, información y divulgación de la actividad de la entidad (jornadas, seminarios, cursos, etc.).
- Desarrollo de programas específicos de intervención dirigidos a los colectivos objeto de la actividad asociativa. Se considerarán especialmente las actividades realizadas por personal voluntario.

Podrán orientarse a la población en general o a sectores específicos: familia, infancia, personas con diversidad funcional, con dependencia o enfermedades, minorías étnicas, personas inmigrantes, personas exreclusas, personas con dependencia a hábitos de consumo no saludables, ludopatía, etc., personas mayores, y cualquier grupo en situación de riesgo social que precise de la intervención de los Servicios Sociales.

2. Solicitantes.

Tendrá la consideración de beneficiaria de subvenciones las asociaciones sin ánimo de lucro que haya de realizar la actividad que fundamentó su otorgamiento.

Onuradun izateko, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutako baldintzak bete beharko dira.

3. Onuradunen betebeharrak.

Onuradunen betebeharrak hauek dira:

a) Helburua betetzea, egitasmoa burutzea, jarduera egitea edo dirulaguntza emateko arrazoiaren arabera jokatzeara.

b) Udalaren aurrean dirulaguntza emateko jarritako baldintzak betetzen dituela, jarduera burutu eta helburua bete dela egiaztatzea.

c) Dirulaguntza ematen duen organoak egingo dituen egiaztapen jarduerak onartzea, baita eskumena duten kontroleko organoek, nazionalek nahiz komunitarioek, egiaztatzeko edo finantzen kontrolerako egin dezaketene beste edozein egiaztapen jarduera ere. Jarduera horietan eskatutako informazio guztia eman beharko du.

d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak lortuz gero dirulaguntza ematen duen organoari jakinaraziko dio. Jakinarazpen hori bestelako laguntzen berri izan bezain pronto emango da, edo, gutxienez, onartutako dirulaguntzari emandako aplikazioaren egiaztatpena egin baino lehen.

e) Eskura izango ditu: Kontabilitate liburuak, erregistro eguneratuak, eta onuradunari kasu bakoitzean aplika dakiokeen merkataritza legedian eskatutako terminoetan ikuskatutako bestelako agiriak; baita dirulaguntzak arautzen dituen oinarrietan eskatutako kontabilitate egoera eta erregistro zehatzak ere; honela egiaztapen eta kontrol ahalmenak era egokian gauzatzea bermatzen da.

f) Jasotako dirulaguntzak zertan erabili dituen egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jardueretarako gai izan daitezkeen bitartean behintzat.

g) Dirulaguntza jasotzen duen jardueraren berri emateko neurriak hartzea; hau da, onuradunak Villabonako udalaren dirulaguntza jasotzen duten programa, jarduera, inbertsio edo ekin-tzen finantziazioaren izaera publikoaren publizitatea egin beharko du.

h) Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzaren bat gertatuz gero jasotako dirua itzuli egin beharko du.

i) Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein inguruabar aldatu egingo balitz dirulaguntza ematen duen organoari jakinarazi behar zaio.

j) Udalean indarrean dagoen euskararen erabilera normalizatzeko planean jasotako hizkuntza irizpideak betetzea.

k) Diruz lagundutako jarduerak sortutako komunikazio guztiak hizkuntza inklusiboan egitea, eta emakumeen eta gizonezkoen irudiak estereotiporik gabekoak eta kopuruz ere parekoak izatea.

4. Baloratzeko irizpideak.

Erakunde edo elkarte bakoitzari emango zaion dirulaguntza kopurua ezartzeko helburuarekin, alderdi hauek izango dira kontuan:

Udaleko aurrekontuan helburu horretarako aurreikusitako zenbatekoa.

Gehienez hiru erakunde diruz lagunduko dira, eta hautaketa egiteko balorazio irizpideak hartuko dira kontuan.

Jarraian adierazten diren irizpideak kontuan izanik, puntuaketa handiena duten hiru elkarteei proportzionalki aurrekontuan ezarritako diruaren arabera emango zaie dirulaguntza.

Para obtener la condición de entidad beneficiaria se deberán cumplir los requisitos establecidos en el art. 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

3. Obligaciones de las entidades beneficiarias.

Son obligaciones de las entidades beneficiarias:

a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamentó la concesión de la subvención.

b) Justificar ante el ayuntamiento el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión de la subvención.

c) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, tanto nacionales como comunitarios, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

d) Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

e) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

f) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

g) Adoptar las medidas de difusión de la actividad subvencionada, esto es, la persona beneficiaria deberá dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de programas, actividades, inversiones, o actuaciones que sean objeto de subvención por parte del Ayuntamiento de Villabona.

h) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en estas bases.

i) Comunicar al órgano concedente la modificación de cualquier circunstancia que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

j) Cumplir los criterios lingüísticos recogidos en el vigente plan para la normalización del uso del euskera.

k) Realizar toda la comunicación generada por la actividad subvencionada en un lenguaje inclusivo y garantizar la presencia equilibrada y no estereotipada de mujeres y hombres en las imágenes que se utilicen.

4. Criterios de valoración.

Con el fin de establecer la cantidad de subvención que a cada organismo o asociación se le vaya a otorgar, se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:

Cantidad prevista para ese fin en el presupuesto del Ayuntamiento.

El número de organismos que se subvencionará será un máximo de tres y para su selección se tendrán en cuenta los criterios de valoración.

Teniendo en cuenta los criterios de valoración, los tres que mayor puntuación hayan obtenido, se les concederá proporcionalmente la cantidad establecida en el presupuesto.

Eskatutako dirulaguntza proportzionalki hiruren artean banatutakoa baino txikiagoa bada, eskatutako kantitatea soilik emango zaio, eta gainerakoa hautatutako beste bi edo bestearen artean banatuko da.

3 erakunde hauen artean deialdi honetara bideratutako diru kopurua agortuko ez balitz, laguntza puntuaketa handiena izan duen hurrengo erakundeari emango zaio, beti ere artikulua honetan zehazten diren baldintzen arabera.

Lehenengo lau erakundeen artean deialdi honetara bideratutako kopuru guztia agortuko ez balitz, puntuazio ordenaren arabera, bosgarren erakundeari eta hurrengo bideratuko zaie, deialdi honetako diru-kopurua agortu arte.

Edozein elkarteri ematen zaion kopuruak ezin izango du gainditu hasierako kalkuluaren ondoriozko zenbatekoa, hau da, aurrekontua hirutan zatituta, nahiz eta dirulaguntzaren eskaera kopuru hori baino handiagoa izan.

Bestalde, benetako gastua aurkeztutako aurrekontua baino baxuagoa baldin bada, edo jarduera egiten ez bada, aldea itzuli egin beharko da.

Garatu beharreko jarduera edo programen balorazio irizpideak honako hauek izango dira:

* Aurkeztutako proiektuaren balorazioa.

– Jarduera-eremua: lehentasuna izango dute Villabonan eta eskualdean jarduera esparrua duten entitateek, beren jarduerak Villabonan garatzen dituzten kontuan hartuta.

≡ Villabonan jarduera esparrua: 15 puntu.

≡ Eskualdean jarduera esparrua: 10 puntu.

≡ Gipuzkoan jarduera esparrua: 5 puntu.

– Hartzaileak (gehienez 10 puntu).

≡ Herritarrak orokorrean: 5 puntu.

≡ Elkarteko kideak: 5 puntu.

– Proiektuaren kalitatea: helburuen eta ekintzen definizioa, iraupen-denbora, gaiaren arteko koherentzia, proposatutako helburuak, garatu beharreko jarduerak, emaitzak eta aurrekontua: gehienez 15 puntu.

– Genero ikuspegia txertatzea edo emakumeen eta gizonezkoen berdintasuna sustatzea: gehienez 5 puntu.

* Entitate eskatzailearen balorazioa.

– Entitatearen egoitza.

≡ Udalerrikoa: 10 puntu.

≡ Lurraldekoa: 8 puntu.

≡ Euskal Herrikoa: 6 puntu.

≡ Estatukoa: 4 puntu.

≡ Nazioartekoa: 2 puntu.

– Elkarte eskatzaileak gizarte arloan izandako jarraitasuna eta egonkortasuna.

≡ > 5 urte: 10 puntu.

≡ > 3 urte: 5 puntu.

≡ 1-3 urte: 2 puntu.

– Villabonako onuradun edo bazkide kopurua.

≡ > 50 onuradun/bazkide: 10 puntu.

≡ 20 eta 50 onuradun/bazkide bitartean: 5 puntu.

≡ < 20 onuradun/bazkide: 2 puntu.

– Udal gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritzea eta koordinatzea: gehienez 10 puntu.

≡ Etengabeko koordinazioa (hilero): 10 puntu.

Si la ayuda solicitada es inferior a la cantidad repartida proporcionalmente entre las tres, solamente se le otorgará la cantidad solicitada, y la restante se repartirá entre las otras u otra entidad.

Si se da la circunstancia de que entre estas 3 entidades no se agota la cantidad destinada a la ejecución de la presente convocatoria, se otorgará la ayuda a la siguiente entidad que mayor puntuación haya obtenido, según criterios marcados en el presente artículo.

Si entre las cuatro primeras entidades no se agotase la totalidad de la cantidad destinada a esta convocatoria se procederá del mismo con la quinta entidad por orden de puntuación y sucesivas hasta el agotamiento de la cantidad destinada a la presente convocatoria.

La cantidad que se otorgue a cualquiera de las asociaciones nunca podrá superar la cantidad derivada del cálculo inicial, es decir, el presupuesto dividido entre tres, aunque la solicitud de subvención sea superior a esta cantidad.

Por otra parte, si el gasto real es inferior al presupuesto presentado o si no se realiza la actividad, deberá de devolver la diferencia.

Los criterios de valoración de la actividad y/o programas a desarrollar serán los siguientes:

* Valoración del proyecto presentado.

– Ámbito de actuación: tendrán prioridad las solicitudes presentadas por entidades cuyo ámbito de actuación sea Villabona y comarca, teniéndose en cuenta si desarrollan actividades en Villabona.

≡ Ámbito de actuación Villabona: 15 puntos.

≡ Ámbito de actuación Comarcal: 10 puntos.

≡ Ámbito de actuación Gipuzkoa: 5 puntos.

– Personas destinatarias (hasta 10 puntos).

≡ Destinado a la población en general: 5 puntos.

≡ Destinado a las personas socias de la asociación: 5 puntos.

– Calidad del proyecto: definición de objetivos y acciones, tiempo de duración, coherencia entre temática, objetivos propuestos, actividades a desarrollar, resultados y presupuesto: hasta 15 puntos.

– Incorporación enfoque de género o promoción de la igualdad de mujeres y hombres: hasta 5 puntos.

* Valoración de la entidad solicitante.

– Sede de la entidad.

≡ Municipal: 10 puntos.

≡ Territorial: 8 puntos.

≡ País Vasco: 6 puntos.

≡ Estado: 4 puntos.

≡ Internacional: 2 puntos.

– Continuidad y estabilidad demostrada por la entidad solicitante en el ámbito social.

≡ > 5 años: 10 puntos.

≡ > 3 años: 5 puntos.

≡ 1-3 años: 2 puntos.

– Número de personas de Villabona beneficiarias o socias.

≡ > 50 personas beneficiarias/socias: 10 puntos.

≡ Entre 20 y 50 personas beneficiarias/socias: 5 puntos.

≡ < 20 personas beneficiarias/socias: 2 puntos.

– Colaboración y coordinación mantenida con los Servicios Sociales: hasta 10 puntos.

≡ Coordinación continua (mensual): 10 puntos.

≡ Maiztasunezko koordinazioa (hilero ez baina maiztasunez): 5 puntu.

≡ Unean uneko koordinazioa (urtean Zehar une zehatzetan): 2 puntu.

Elkarteak udalerrian duen eragina: azken 3 urteetan udalerrian egindako eta ikusgai jarri diren jarduerak eta esku-hartzeak: gehienez 5 puntu.

Ez dira baloratuko 22 orrialde baino luzera handiagoko lanak (azala barne). Ez da baloratuko proiektutik kanpo aurkezten den dokumentazioa, baloratu beharreko atalen bat aipatzen duena.

5. Eskabideak.

5.1. Aurkezteko lekua eta epea.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak jasotzeko eskabideak honekin batera doan eskabide ofizialean egingo dira Villabonako Udalaren erregistro elektronikoa bidez eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik 20 egun naturaleko epean aurkeztu ahal izango dira.

Erakunde bakoitzeko eskaera bakarra aurkeztu ahal izango da.

5.2. Dokumentazioa.

Laguntzak jasotzeko eskaerak ondoko dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira:

1) Dirulaguntza eskaera normalizatua, behar bezala bete, honekin batera doan ereduaren arabera.

2) Eusko Jaurlaritzako elkarte eta entitate-erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria.

3) Erakundearen Identifikazio fiskaleko kodearen fotokopia (I.F.K.) eta erakundearen ardura duen pertsonaren NANA.

4) Erakundearen edo sozietatearen estatutuak.

5) Eskaria egiten duen Erakundeak irekitako Kontu Korrontearen titularitatea ziurtatzeko banketxe edo aurrezki kutxa horrek emaniko agiria.

6) Instituzio, Erakunde eta abarrei eskatutako dirulaguntzen, edo, hala bada, jasota dituztenaren aitortpena.

7) Aurkeztutako programaren txostena zehaztua. Txostena euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko da, euskarari lehentasuna emanez. Baloraziorako gehienez ere 22 orrialde izan beharko ditu (azala barne).

8) Dirulaguntzaren xede izango den programaren aurrekontua.

9) Entitatearen urteko aurrekontua.

10) Administrazioarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga obligazio guztiak bete izanaren ziurtagiria.

11) Zinpeko aitortpena, non adierazten den dirulaguntzak jasotzeko inolako debekurik ez duela. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan, 2 eta 3 ataletan zehaztutakoak izango dira, agiri honi atxikitzen zaion ereduari jarraiki.

Eskatzaileak aurkeztutako agiriak osagabeak edo oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatzen denean, interesatuari dei egingo zaio hamar lan eguneko epean akatsak zuzen ditzan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio hala egingo ez balu eskaria baliogabetua geratuko dela, eta, besterik gabe, artxibatu egingo dela indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Eskaera aurkezteak ez du, berez, dirulaguntza jasotzeko eskubiderik ematen, dirulaguntza orok berekin duen iritzia araberako izaera baitu dirulaguntza honek ere.

≡ Coordinación frecuente (no mensual, pero con frecuencia): 5 puntos.

≡ Coordinación puntual (durante el año, momentos concretos): 2 puntos.

Impacto de la asociación en el municipio: actividades o intervenciones realizadas en los últimos 3 años y que hayan sido visibilizadas en el municipio: hasta 5 puntos.

No se valoraran aquellos proyectos que se presenten con una extensión superior a 22 páginas (incluida la portada). No se valorará aquella documentación que se presente fuera del proyecto que haga referencia a alguno/s de los apartados a valorar.

5. Solicitudes.

5.1. Lugar y plazo de presentación.

Las solicitudes para acogerse a las subvenciones previstas en la presente convocatoria se realizarán a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Villabona en la instancia oficial adjunta a la presente y podrán presentarse en el plazo de 20 días naturales a partir de la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Sólo se podrá presentar una única solicitud por entidad.

5.2. Documentación.

Las solicitudes de las ayudas deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

1) Solicitud de subvención normalizada conforme al modelo que se adjunta, debidamente cumplimentada.

2) Certificado de inscripción en el registro de asociaciones y entidades del Gobierno Vasco.

3) Código de Identificación Fiscal de la entidad (C.I.F.) y documento nacional de identidad de la persona responsable de la entidad.

4) Estatutos de la entidad o sociedad.

5) Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por la entidad solicitante.

6) Declaración sobre solicitudes de subvención realizadas ante Instituciones, Organismos, etc. o, en su caso, de las que estuvieran otorgadas.

7) Memoria detallada del programa presentado. La memoria se presentará en euskera o en euskera y castellano, dando prioridad al euskera. Para su valoración, la extensión máxima admitida será de 22 páginas (incluida portada).

8) Presupuesto del programa para el que solicita subvención.

9) Presupuesto anual de la entidad.

10) Certificación de hallarse al corriente de las obligaciones y de la Seguridad Social.

11) Declaración jurada de no hallarse en ningún caso de prohibición para recibir la subvención, en virtud del art. 13 los apartados 2 y 3 de la ley 38/2003 de 17 de noviembre, según modelo que se adjunta a la presente.

Cuando se comprobara que la documentación presentada por la persona solicitante es incompleta o no reúne los requisitos exigidos en las presentes Bases, se requerirá a la persona interesada para que en un plazo de diez días hábiles subsane los defectos formales o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose la solicitud sin más trámites, de acuerdo con la normativa vigente.

La presentación de la solicitud no otorga en sí mismo el derecho de recibir subvención, dado que ésta, como toda subvención, está supeditada a la valoración de la misma.

Eskaera onartua izanda ere, Udalak beharrezkoak dituen argibide eta dokumentuak eska ditzake.

6. *Prozeduraren instrukzioa.*

Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, Gizarte Zerbitzuen Sailak aztertuko ditu aurkeztutako eskaerak eta egindako txosten teknikoak, hala balegokio, eta Udaleko organo eskuduna banaketaren proposamena egingo du.

Dirulaguntza ematea lehiakortasun sistema bidez egingo da, hala, batzuk hautatuko dira jarritako irizpideen arabera, diruz lagundutako egintzen kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatuz.

7. *Ebazpena.*

Eskabidea eta dokumentazioa aurkeztu ondoren, Gizarte Zerbitzuen Sailak aurkeztutako eskabideak aztertuko ditu, eta, hala badagokio, ebazteko eskumena duen Alkatetzari egingo dio proposamena.

Udaleko organo eskudunak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik 3 hilabetetako epean ebatziko du. Epea amaitutakoan Udalak ez balu berariaz inolako erabakirik hartu eskaeraren bati buruz, eskaera ez dela onartu ulertu beharko da.

Era berean, dirulaguntza ordaintzeko, bi ordainketa egingo dira: bata, dirulaguntzaren % 90a onartzean egingo da; gainerako, % 10a, proiektua gauzatu dela egiaztatu ondoren. Horretarako, txosten xehatua, balantze ekonomikoa eta egindako gastuak justifikatu beharko dira.

8. *Dirulaguntzaren zuriketa eta ordainketa.*

Dirulaguntza jasotzeko, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

a) Ekintzen memoria: Dirulaguntzen helburu diren jarduerak azaltzeko memoria eta lortutako emaitzen balorazioa. Memoria honen bitartez diruz lagundu diren ekintzak egin direla eta helburuak bete direla ziurtatu da. Txostena euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko da, euskarari lehentasuna emanez.

b) Laguntza ekonomikoaren ondorioz garatutako jardueren sortutako dokumentazio grafiko eta idatzien ale bat, halakorik balego.

c) Diruz lagundutako jardueren gastuen eta diru-sarrera guztien balantzea, erakundeko idazkariak sinatuta eta dagokien ziguiluekin.

d) Jardueren gastuen zerrenda eta dokumentuen kopia. Zerrendan, hartzailerearen identifikazioa, dokumentu mota, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa data zehaztu dira.

Udalak, dagozkion bide guztiak erabiliz, emandako dirulaguntzen erabilera aztertu ahal izango du.

9. *Zuritzeko epea.*

2027ko urtarrilaren 15 baino lehen aurkeztu beharko da aurreko oinarrian eskatutako dokumentazioa. Dirulaguntza zuritzen ez bada, dirua itzuli beharko da.

10. *Zuzkidura eta aurrekontuko partida.*

Deialdi honen bidez dirulaguntzak emateko zenbatekoa 12.000,00 eurokoa da, 1.0200.481.230.30.01.2026. partidan kargatuko dena.

11. *Dirulaguntzen bateragarritasuna.*

1. Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira bai beste Herri Administrazioek emandako dirulaguntzekin, bai erakunde publiko nahiz pribatuek emandakoekin, helburua eta xedea berberak izanda ere.

Una vez admitida la solicitud el Ayuntamiento podrá solicitar cuantos documentos o aclaraciones considere convenientes.

6. *Instrucción del procedimiento.*

Presentada la documentación requerida, el Área de Servicios Sociales estudiará y analizará las solicitudes recibidas y los informes técnicos elaborados en su caso, elevando propuesta de concesión al órgano competente del Ayuntamiento.

La concesión de la subvención se efectuará en régimen de concurrencia competitiva, de manera que tan sólo se seleccionará, conforme a los criterios fijados en cada caso, un número de ayudas que asegure la calidad y viabilidad de las acciones subvencionadas.

7. *Resolución.*

Una vez presentada la solicitud de subvención junto con la documentación, el departamento de Servicios Sociales analizará las solicitudes presentadas y, si así correspondiera, realizará la propuesta a Alcaldía, órgano competente para su resolución.

El órgano competente del Ayuntamiento resolverá en el plazo de 3 meses desde la finalización del plazo de presentación de las solicitudes. Si transcurrido el plazo citado el Ayuntamiento no hubiese dictado resolución expresa sobre alguna solicitud, se entenderá que la misma ha sido denegada.

Asimismo, la subvención se abonará en dos pagos, uno del 90 % de la subvención una vez aprobada y otro del 10 % restante después de justificar la ejecución del proyecto, con la memoria detallada, balance económico y justificantes del gasto realizado por el importe subvencionado.

8. *Justificación y pago de la subvención.*

El abono de las subvenciones se hará previa presentación de la siguiente documentación:

a) Memoria de actividades: memoria explicativa de las actividades que son objeto de la subvención y la valoración de los resultados obtenidos. La memoria se presentará en euskera o en euskera y castellano, dando prioridad al euskera.

b) Documentación gráfica y/o un ejemplar escrito generado en la actividad desarrollada, si así lo hubiera.

c) Balance de ingresos y gastos de las actividades subvencionadas, firmado por el responsable de la entidad y con el sello correspondiente.

d) Copia de la lista de gastos de las actividades y copia de los documentos. En la lista debe constar la identificación de receptor, el tipo de documento, el coste, fecha de emisión y de pago.

El Ayuntamiento podrá comprobar, por los medios que estime oportunos, la inversión de las cantidades otorgadas en concepto de subvención.

9. *Plazo de justificación.*

La presentación de la documentación requerida en la base anterior se realizará antes del día 15 de enero de 2027. La no justificación de la subvención supondrá la devolución de la cantidad recibida.

10. *Dotación y partida presupuestaria.*

La cantidad destinada a la ejecución de la presente convocatoria de subvenciones es de 12.000,00 euros, con cargo a la partida 1.0200.481.230.30.01.2026.

11. *Compatibilidad de las ayudas.*

1. Las ayudas previstas en las presentes bases serán compatibles con las subvenciones otorgadas por otras Administraciones Públicas o entidades públicas y privadas que coincidan en su objeto o en las que se contemple la misma finalidad.

2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako dirulaguntza ezin izango da diruz lagundutako jardunen kostua baino handiagoa izan. Horrelakorik gertatuz gero, muga hori ez gainditzearen, ematekoa den dirulaguntza Oinarri hauen kargura murriztuko da.

12. Betebeharrak ez betetzea.

Elkarte baten aldetik deialdi honetan aurreikusten diren oinarrietako bat ez betetzeak dirulaguntza iraungiaraztea edo gutxitzea ekarriko du. Dena den, Dirulaguntzetarako Orokorra den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikulua eta harekin bat datorren gainontzeko araudiak xedatzen dutena aplikatuko da.

Jarduera bertan behera utzi edo eskabidean adierazitakotik nabarmen aldatuko balitz, jasotako diru-kopurua itzultzeko obligazioa izango du jaso duen Elkartek.

13. Publizitatea.

Diruz lagundutako jardueri buruzko publizitatean, beti Villabonako Udalaren lankidetzara adierazi beharko da. Jardueri buruzko publizitatea egiterakoan eta karteletan euskara erabiliko da, eta bi hizkuntza ofizialak erabiltzekotan, euskarari lehentasuna emango zaio.

14. Interpretazioa.

Oinarri hauek interpretatzean sor daitekeen edozein zalantza Alkatetzak ebatziko du, Villabonako Udaleko gizarte politika, aniztasuna, adineko pertsonak eta politika feminista batzordeak proposatuta.

15. Ordezko araudia.

Oinarri hauetan aurreikusten ez den guztirako, Herri Erakundeek aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da, bereziki, Dirulaguntzetarako azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailak 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako legeak zehazten duen Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

2. En el caso de concurrencia con otras ayudas, el importe de la subvención no podrá superar el coste de las actuaciones subvencionadas. En dicho supuesto, se procedería, al objeto de no rebasar dicho límite, a la reducción de la ayuda con cargo a las presentes bases.

12. Incumplimiento de las obligaciones.

El incumplimiento de cualquiera de las condiciones que se prevén en la presente convocatoria por parte de una asociación, conllevará la resolución o minoración de la subvención. En todo caso será de aplicación lo señalado en el artículo 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y demás normativa concordante.

En caso de suspenderse la puesta en marcha del programa, o cuando el mismo difiera sustancialmente de lo expresado en la solicitud, la Asociación estará obligada a la devolución de la cantidad percibida.

13. Publicidad.

En toda publicidad que se realice de las actividades subvencionadas, deberá hacerse constar la colaboración del Ayuntamiento de Villabona. Tanto en la publicidad como en los carteles referentes a las actividades se utilizará el euskara, y en caso de utilizar las dos lenguas oficiales, se dará prioridad al euskera.

14. Interpretación.

Cualquier duda que pueda surgir en torno a la interpretación de estas Bases, será resuelta por Alcaldía a propuesta de la Comisión de política social, diversidad, personas mayores y política del Ayuntamiento de Villabona.

15. Normativa supletoria.

En lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación lo dispuesto en la normativa aplicable a las Entidades Locales, especialmente la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.